

## LAUREANO ETA BERE ISTORIOAK

Nere bizian gertatu denari buruz hitz batzuk egin behar dizkizut ea ikusten duzun gerra aurretik nola bizitzen zen, baita gerra ondoren ere. Gerra aurretik jendeak mendian egiten zuen lan, pion ere ibiltzen zen. Mendian egurra biltzen aritzen ziren. Gaztaina ere asko biltzen zen.

Etxean gosaltzeko opil eta esnea jaten zen. Bazkaltzeko ez zen haragirik jaten zerria hildako urtea ez bazen. Eta afaltzeko berriro ere opil eta esnea jaten zen gaztain erreekin batera. Jateko hau zuena pozik egon zitekeen pobre askok ez bait zuen ezer izaten jateko ez bait zuten diru pizarrik ere. Etxetan ez zuten ez urik ez komunik izaten.

Neguan hotz handia egiten zuenean, orain baino izotz eta elur handiagoak egiten zituenek komentuko monjek jende pobreari jaten ematen zioten. Platera bat eltzari izaten zen ematen ziotena.

Lanean aritzen zen jendeak ere gutxi irabazten zuenez mendian ere aritzen ziren iratzeak moztzen eta abarretan. Lan hau egiteagatik eguneko pezeta bat eta ilarra edo baba platera bat irabazten zuten edateko ez zuten ardorik izaten ura baizik. Orduan ez zen besterik izaten, orain desberdina da oso.

Lehen jendea oso gogor ibiltzen zen kontrabandoan. Hasieran Hamar pta irabazten ziren arratseko, azken aldera berriz hogeit eta hamar pta irabazten ziren eguneko. Ni ere pixka bat aritu nintzen baina ez asko, nere anaiak ordea asko aritu ziren. Jendea ahal zuen bezala bizi zen, ez orain bezala.

Geroago gerra hasi zen eta segituan gerrara joan ginen nik hamasei hamazazpi urte nituen. Hemezortzi hilabete pasatu nituen gerran, suerte handia izan nuen, nere lagun asko hil egin bait ziren. Zorionez ni ez ninduen bala bakar batek ere ukitu. Lesakan bertan hogeitahamabi hil ziren, nere lagunak, batere kulparik gabe.

Gerra bukatu zenean soldado geditu ginen, gazteak ginen. Sei urte hiru hilabete eta hogeitazortzi egun egin genituen soldado. Eguneko hamar sos itabazten genituen. Diru honekin garbitasuna, txagoia, arropak garbitu dena diru honekin ordaindu behar izaten genuen.

Soldaduok zorritz beteak egoten ginen. Orain telebiistan gerretan nola bizitzen diren ikusten dugu, ba gu ere horrelaxe bizituak gara. Jende asko arritu egiten da baina gu ez gara arritzen. Gu pixka bat jaten ari ginenean haurra guztiak gugana etortzen ziren ea janari pixka bat ematen genien

Soldadu bukatu nuenean etxera etorri nintzen eta ez zegoen lanik. Asko gipuzkoa aldera joaten ziren beste batzuk marinara... ni berriz osabarekin zurgin ikasten hasi nintzen eta horrela sos batzuk irabazten nituen baina gutxi. Hasieran hamabi pta irabazten genituen eguneko eta gero poliki poliki igoz joan zen.

Geroago Lesakako fabrika ireki zutenean jendea meioratu egin zen. Bortzirietako jendea horretxek salbatu zuen. Jendea larri xamar ibiliko zen fabrika hau egin ez balitz.

Fabrika martxan hasi zenean arakindegia jarri nuen jende pixka ibiltzen bait zen herrian, beraz eskusa honekin negozio pixka bat jarri nuen. Zurgin izateti utzi eta arakindegia jarri nuen.

Arakindegiarekin hasieratik ongi, oso ongi moldatu ginen. Ongi moldatu ginen jende asko baait zegoen eta asko erosten bait zuten. Goizean zortzietan idekitzen nuen arakindegia. Neguan baserritara joaten nintzen zerriak hiltzera. Ni han nengoen bitartean andreak arakindegia irekitzen zuen. Geroxeago ni etortzen nintzen. Arratsaldean, berriro joaten nintzen baserrietara zerria xehetzera. Horrela sos batzuk atera genituen.

Geroago hiru semealaba izan genituen, hauek ere eskolan hasi ziren. Semeak arakindegitza ikasi zuen.

Arakindegian anekdota asko pasatu zaizkigu. Goizetan aziendak guk hiltzen genituen, hauetako batean zekorrek egon behar zuen gantxotik ni nengoen zintzilik eta zekorra berriz polearen beste aldean zegoen. Zintzilik nengoela beharrik zekorraren jabea etorri eta jeitxi ninduela gantxoa kenduz. Gantxoa eskutik atera zidan baina desmaiatu eta guzti egin nintzen. Ebakiak eta horrelakoak berriz askotan gertatu zaizkit.

Andrea oso langilea suertatu zitzaidan eta bion artean egiten genuen dena aziendak erosi, hil eta andreak tripak garbitu. Horrela pixkanaka pixkanaka familia gora atera genuen.

Arakindegiak txarra duen gauzetariko bat zorrak dira. Gainera garai bat izan zen fabrika huelgan egon zela eta orduan jendeak erosten zuen baina gero ordaintzeko kondizioarekin, ez bait zuten dirurik, baina guk ere dirua behar genuen, baina ezin kobratu.

Orduan eguberrietako loteria saltzen zen eta hirureun mila pta-ren loteria ekarri nuen, baita saltzen hasi ere. Andreari esan nionean errieta eman zidan ea zergatik ekarri nuen horrenbeste. Gero jendeari saltzen saiatu nintzen baina dirurik ez zenez ez zuten asko erosten eta askorekin geratu nintzen nerone. Andreari gezurra esan nion, dena saldu nuela esanez. Zorionez loteria tokatu egin zitzaidan, duroko sei duro tokatu ziren, eta niri hogeitahamabost mila duro tokatu zitzaizkidan. Denbora haietarako diru asko zen. Honeri eskerrak pixka bat igo nintzen diru aldetik. Seme alabak ere eskoletan zebiltzan. Egia esanda dena ongi ateratzen zuten. Eskolakoa bukatutakoan Irungo Institutotara joan ziren ikasketekin jarraitzera. Irunen ere dena aprobatzen zuten. Lehen esan dudan bezala mutilak arakindegitza ikasi zuen Baina nik nahiago nuen beste zerbait egitea eta "Universidad de Navarra"-an beka onak eman zizkietenez bi mediku egin ziren, orain lanean ari direnak eta besteak farmazeutika egin zuen.

Guk sakrifizio handia egin genuen ahalik eta sos gutxien gastatuz eta ahal genuen bezala atera zuten. Denek karrera atera zuten eta bi ezkondu egin ziren eta bestea segituan ezkonduko da.

Bi hauek ezkonduetakoan guri jubilatzeke ordua iritsi zitzaigun eta jubilatzen ginen eta arakindegia itxi egin genuen. Maxterrak ginenez jabeati lokal itzuli genion. Jendeak traspasoa nahi zuen harren guk ez genuen traspasorik egin lokalaren jabea oso ongi portatu bait zen gurekin. Konzientziak traspasoa ez egiteko gomendatzen zidan.

Gu orain jubilatzen bizi gara. Lan pixka bat egiten aritzen gara, baratzeta daukagu han patata, ilarra eta horrelakoak egiten ditugu. Onddo denboran onddo billa ere joaten gara. Noiz

nahi pascoan gabiltza, oso ongi bizi gara.

Umeak ere oso onak suertatu zaizkigu, gauza asko egiten dizkigute. Illobak ere baditugu eta hauek kuidatzera joaten gara, beraiek ere hona etortzen dira eta gu oso gustora egoten gara. Eguberrietan, oporretan eta bestetan etortzen dira. Eta guk oso ondo hartzen ditugu. Guk ezin dugu lan handirik egin baina bueno konten bizi gara.

Oraindik ere aretzeak hiltzen ere aritzen naiz nere andrearen famili artean. Bost aizpa eta bi anai dira. Hauen etxeetan urtero aretxe bat hiltzen dute guk, andreak eta biok deshuesatu eta horrelakoak egiten dizkiegu.

Zerri hiltzen ere aritzen gara baserrietan baina hori bai familia artean bakarrik. Goizean joaten gara eta arratserako dena egiten dugu, Lukainkak, odolkiak etab. Egun horretan ederki bazkaltzen dugu, besta ederra egiten dugu. Horrela familia juntatzen gara. Orain ere horretan gabiltza.

Orain inork ez du zerri hiltzen ari nahi eta nik jada 80 urte ditut eta orain nere suia beharrari erakusten ari naiz, afizioa badu eta baita abildadea ere. Gero segitu dezan erakusten diot gu ere ez bait gara betirako. Guk ere adin bat badaukagu eta izitzen gara baina festa egiten dugu eta suia ere konten egoten da.

Neguan edozein igandeetan izaten dugu batean aretzea dela bestean zerria dela, baita bildotsak ere. Baserrietan bildotsak ere hiltzen dituzte, denek bait dituzte ardiak. Gu hementxe aritzen gara denei laguntzen.

Koinata bat ere badugu, andrearen aizpa, alarguna da eta askotan lagutza behar izaten du, ardiak eta bait ditu. Ardiak mendian edukitzen ditu eta gu mendian asko ibiltzen garenez guk ardian egingo diogula esaten diogu. Guk denak ezagutzen ez ditugunez, ardiak pintatzeko esaten diogu baina berak ardiak pintatzen dituean artzain txarra dela erantzuten digu. Ardia bere gisa ezagutu behar homen dela esaten digu. Menditik bueltarakoan askotan ea bere ardiak ikusi ditugun galdetzen digu. Guk, batzuk ikusi ditugula esaten diogu ez bait ditugu denak ezagutzen. Horrelaxe ibiltzen gara bueltaka.

### **ISTORIOAK**

Ni txikitan oso trabiesua nintzen, sei zazpi urte nituenean gure aita tratuan ibiltzen zen. Orduan kotxerik ez zegoenez bizikletza joaten zen Lesakatik baztanera, baserrietatik aziendak erostera eta. Aitak bizikleta kandaturik uzten zuen ni ibili ez nedin. Bizikletak barra izaten zuen eta pedaletara iristen ez nintzen barraren azpian ibiltzen nintzen. Egun batean bizikleta kandaturik zegoela ikusi nuen eta osaba zurgina izaten nuen ez limak zorrozteko zerrotea hartu eta kandadoa moztu nion. Kandadoa moztetakoan bizikleta hartu eta martxa egin nuen.

Bueltaka genbiltzala martxa koxlorrean nijoan eta behi pare bat zihoan. Orduan behiak karroekin ibiltzen ziren kotxerik ez zegoelako, denak karroetan eta asto gainean ibiltzen ziren. Bizikletarekin karro baten azpira saru nintzen eta bizikleta xehetu egin nuen. Bizikleta etxera eramanez eta gorde egin nuen.



Hurrengo egunean aitak tratura joateko behar zuen eta bizikletarik ez, dena xehetua. Aitak joko ninduen baina nere amatxi (amona) zaharra han zegoen ni salbatzeko. Amatik, aitari, ni pakean uzteko esan zion ni haur bat nintzela eta errez joko ninduela. Aita horren ona izaten zenez, ez ninduen jo. Istorio gehiago ere baditut.

Lehen esan dudan bezala oso bihurriak ginen, mendi guztietatik barna eta baita eskolan ere. Behin eskolara joan eta maixua nere klasean zegoen lehengusuari zera ari zitzaion esaten hemendik ilargira ez dakit zenbat kilometro zeudela eta, orduan nere lehegusuak zera erantzun zion, ez dizut sinesten hori gezurra da, "Quien a neurrido eso?". Ez zuela sinesten berriro ere esan zien. Maisua irrika gelditu zen, baina ala zen, guk ez genuen sinesten.

Beste batean paseatzen gindoazen mutil kuadrila bat, eta ez genuen gauza onik izanten. Maixenea izeneko etxe batean bi neskazar bizi ziren eta katu bat izaten zuten, bedeinkatua, semerik izaten ez zutenez katuari egiten zizkioten mimo guztiak. Nere lehengusuak pasatzerakoan ostikoz jotzen du eta katua ankaz gora botatzen du. Orduan neskazar batek esaten dio:

-Idiota.

Lehengusuak:

-Hire katua bota dit jota.

Berriro neska zaharrak:

-Urde filda.

Berriro lehengusuak:

-Zure katua hilda.

Banuen beste lehengusu bat, beti bizikletaz ibiltzen ginen, ez genuen frenorik izaten baina... Abiadura kozkorrean ibiltzen zen eta buruztainka erori zen halako batean. Erori zenean gizon batzuk iseka egin zioten:

-Erori al zara? Ja Ja.

Lehengusuak zera erantzun zion:

-Ez ez naiz erori, "Es mi manera de bajar."

Horrela bukatzen dut Laureanoren biziari buruzkoa. Datorren urtean berriro ere berekin beste zerbait konkretuagoaz hitz egiteko esperantzarekin.